HH3-4-5

Donostian, 2019ko uztailaren 12an

Guraso agurgarriak:

Gutun honen bidez 2019-2020 ikasturterako eskola antolakuntzaren berri eman nahi dizuegu.

Aurten izan dugun lekualdatzea dela eta, egoitza desberdinetako helbide eta komunikazio bide nagusi berriak izango ditugu. Hauek dira:

| **HAUR HEZKUNTZA (HH)** | **VILLA SOROAKO egoitza.** |
|---|---|
| Ategorrieta, 24 - 20013 Donostia.<br>Tf.: 943287232 - E-posta: idazkaritzahh@zurriolaikastola.net | |
| **LEHEN HEZKUNTZA 1 eta LH2 (LH)** | **JOSEFINETAKO egoitza.** |
| Rodil, 45 - 20013 Donostia.<br>Tf.: 943937743 - E-posta: idazkaritzalh@zurriolaikastola.net<br>*Idazkaritza Hurrako egoitzan egongo da | |
| **LEHEN HEZKUNTZA 3-6 (LH)** | **HURRAKO egoitza.** |
| Indianoene, 1 - 20013 Donostia.<br>Tf.: 943937743 - E-posta: idazkaritzalh@zurriolaikastola.net | |
| **DBH eta BATXILERGOA (BH)** | **HURRAKO egoitza.** |
| Indianoene, 1 - 20013 Donostia.<br>Tf.: 943272587 - E-posta: idazkaritzabh@zurriolaikastola.net | |
| Etapaz gaineko mezuetarako e-posta: zurriola@zurriolaikastola.net | |

Bide batez, gogorarazten dizuegu, urtean zehar Ikastolak gurasoekin izango duen komunikazio bide nagusia ostiraletan bidaltzen den ***ATARIA*** astekari digitala dela. Bertan, aurreko astean izandako ekintza nagusien berri emateaz gain, hurrengo egunetan izango diren gertakariak eta bestelako ohar garrantzitsuak agertzen dira. Hori dela eta, oso garrantzitsua da behar besteko arreta ematea asteroko komunikabide honi. Informazio hori guztiari webguneko *INFORMAZIOA* atala gaineratu behar zaio, etengabeko kontsultagai gisa.

**ESKOLA ORDUTEGIA:**

| HAUR HEZKUNTZA – LEHEN HEZKUNTZA | | |
|---|---|---|
| **IRAILAREN 6tik 20ra** | **GOIZEZ** | **ARRATSALDEZ** |
| HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA | 9:00-12:30 | |
| **IRAILAREN 23tik EKAINAREN 5ra** | **GOIZEZ** | **ARRATSALDEZ** |
| VILLA SOROA | 9:00-12:30 | 15:00-17:00 |
| JOSEFINAK (LH 1. eta 2. mailak) | 9:00-12:30 | 14:50-16:50 |
| HURRA (LH 3., 4., 5. eta 6. mailak) | 9:00-12:30 | 15:00-17:00 |
| **EKAINAREN 8tik 19ra** | **GOIZEZ** | **ARRATSALDEZ** |
| HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA | 9:00-12:30 | |

**IKASTOLAKO SARRERAK ETA IRTEERAK:**

Villa Soroako haurrak ardura duen helduak jasoko ditu irteera orduetan. Antolaketa eta segurtasun arrazoiak direla eta, kontuan hartu hurrengo oharrak:

- **Goizeko 9:00etan** HH3-4-5 urteko haurrek eta familiek **ATARIKO SARRERA** erabiliko duzue. Idazkaritzakoa HH2koek bakarrik erabiliko dute.
- 8:45ean irekiko da atarira sartzeko aukera eta 8:55ean zabalduko da ikastolara sartzeko atea. **Ikastolara ezin da 8:55 baino lehen sartu;** kanpoan itxaron atea ireki arte. Ikastola barruan zaintzako ikasleak daude eta hauek beren geletara bideratu arte ez dugu ikastolara sartzeko atea irekiko.

Goizez gauden bitartean haurrak 12:30ean gelan edo 14:45ean atarian jasoko dituzue. Ikasturte hasieran irailaren 23tik aurrerako sarrera-irteeren inguruko txostena jasoko duzue.

Zurriola ikastola



# EGUTEGIA 2019/2020

**HH-LH**

**IRAILA**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | | | | | | |

**URRIA**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

**AZAROA**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | |

**ABENDUA**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | 31 | | | | | |

**URTARRILA**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

**OTSAILA**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | |

**MARTXOA**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | 31 | | | | | |

**APIRILA**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | | | |

**MAIATZA**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

**EKAINA**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | | | | | |

Ikasturte hasiera eta amaiera

Asteburu, jai egun eta oporraldiak

Goizeko jarduna

## 2019-2020 IKASTURTEKO HAUR HEZKUNTZAKO TUTOREEN ZERRENDA

**3A:** EKAIN SARDON (Alaitzen taldea)
**3B:** ALAINE JAUREGI (bere taldea)
**3C:** IRATI URANGA (Joneren taldea)
**3D:** MADDI TAPIA (Igoneren taldea)

| | |
|---|---|
| **4A:** AINERE GAZTELUMENDI<br>**4B:** MIREN BARRADO<br>**4C:** AMAIA ZELAIETA<br>**4D:** IXIAR SARASOLA | **5A:** IZASKUN ARREGI<br>**5B:** JASONE RAMIRO<br>**5C:** AINHOA ERKIZIA<br>**5D:** AMAIA GARAIGORDOBIL |

# ZERBITZUEN ANTOLAKETA

## GARRAIOA:

Ondorengo taulan zehazten da autobusaren ibilbidea eta geltoki bakoitzaren ordutegia.

Hurra eta Josefinak egoitzetara iristeko udaletxeak momentuz baimendu digun geltoki bakarra (Nafarroa hiribidean) datozen asteetan gehiago gerturatzerik lortuko bagenu, abuztu bukaeran bidaliko den zirkularrean jakinaraziko genizueke.

| GOIZEKOA 9:00 | | | EGUERDIKOA 15:00 | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 7:56 | Txara II (errotondan) | 2 | 14:15 | Karmengo Ama | Bidea Taberna |
| 7:57 | Mons | Taxiak | 14:17 | Karmengo Ama | Laboral kutxa |
| 7:58 | Garro | Kiroldegia | 14:20 | Mandas Dukea | 39 (Tabakalera) |
| 7:59 | Zubiaurre pasealekua | 109 | 14:23 | Mandas Dukea | 9 (Epaitegia) |
| 8:00 | Zubiaurre pasealekua | Todo-todo | 14:27 | Gipuzkoako enparantza | Bidebietako bus |
| 8:04 | Trintxerpe | biribilgunea | 14:33 | Iparragirre | Iradier |
| 8:07 | Kontadoreak | Aurrean | 14:38 | Zurriola hiribidea | 30 |
| 8:13 | Karmengo Ama | Bidea Taberna | 14:41 | Nafarroa hiribidea | Gros anbulatorioa |
| 8:15 | Karmengo Ama | Laboral Kutxa | 14:43 | JOSEFINAK-HURRA | HURRA |
| 8:17 | Mandas Dukea | 39 (Tabakalera) | 14:48 | SOROA | IKASTOLA |
| 8:19 | Mandas Dukea | 9 (Epaitegia) | | | |
| 8:25 | SOROA | IKASTOLA | | | |
| 8:31 | JOSEFINAK-HURRA | Nafarroa hiribidea | | | |
| 8:36 | Gipuzkoa Plaza | Bidebieta bus gel. | | | |
| 8:39 | Iparragirre | Iradier | | | |
| 8:41 | Zurriola ibilbidea | 30 | | | |
| 8:43 | Nafarroa ibilbidea | Gros anbulatorioa | | | |
| 8:48 | SOROA | IKASTOLA | | | |
| 8:53 | JOSEFINAK-HURRA | Nafarroa hiribidea | | | |

| GOIZEKOA 12:30 | | | ARRATSALDEKOA 17:00 | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 12:35 | JOSEFINAK-HURRA | Nafarroa hiribidea | 17:00 | JOSEFINAK-HURRA | Nafarroa hiribidea |
| 12:38 | SOROA | IKASTOLA | 17:03 | SOROA | IKASTOLA |
| 12:44 | Galtzada nagusia | Merkatua | 17:09 | Galtzada nagusia | Merkatua |
| 12:47 | Colon Pasealekua | 11 | 17:12 | Colon Pasealekua | 11 |
| 12:51 | Gipuzkoa enparantza | Bidebieta bus gel. | 17:16 | Gipuzkoa enparantza | Bidebieta bus gel. |
| 12:54 | Mandas Dukea | 9 (Epaitegia) | 17:19 | Mandas Dukea | 9 (Epaitegia) |
| 12:56 | Mandas Dukea | 39 (Tabakalera) | 17:21 | Mandas Dukea | 39 (Tabakalera) |
| 12:58 | Ametzagaina | 1, bus gel. | 17:23 | Ametzagaina | 1, bus gel. |
| 13:00 | Ametzagaina | Maria Reina | 17:25 | Ametzagaina | Maria Reina |

Geltokian 5 min. lehenago egon behar zarete.

**LOTURA-AUTOBUSA (LANTZADERA) ZERBITZUA**

**Josefinak eta Hurratik Soroara**

Josefinetan dauden haurrentzat (LH1 eta LH2) lantzadera zerbitzua eskainiko da 12:30ean eta 17:00etan.

Hauek izango dira lantzadera zerbitzuan izena emateko baldintzak:

- anai-arrebak Soroan edukitzea.
- astean 5 egunetan erabili beharko da (ikastolako arratsaldeko eskolaz-kanpoko saioetan dauden ikasleak izan ezik).

Hurran egongo diren LH3 eta LH4ko ikasleentzat ezin dugu une honetan 17:00etako zerbitzua bermatu. Horren ordez, zaintza zerbitzua eskaintzea aztertzen ari gara (Hurran 17:00etatik 17:30era inguru). Zerbitzu hau erabili ahal izateko goian aipatutako lehen baldintza ezinbestean bete behar da.

Izena emateko esteka honetan duzuen galdetegia bete ezazue abuztuaren 23a baino lehen.

**Soroatik Josefinak eta Hurrara (9:00)**

Soroatik Hurrara lantzadera zerbitzua erabiltzaile guztiei eskain diezaiekegun jakin ahal izateko, datu zehatzak behar ditugu, ezinbestekoa baitzaigu erabiltzaile kopurua zein izango den jakitea. Informazioa lortzeko beheko estekan aurkituko duzuen galdetegia bete ezazue abuztuaren 23a baino lehen.

Autobusa hartzeko bi aukera egongo dira:

1. Autobusa lehen bidaian Soroara iristen denean (08:25)
2. Autobusa bigarren bidaian Soroara iristen denean (08:48)

Lehenengo kasuan ikasleak zaintza zerbitzuan geldituko dira eta zaintzari dagokion kuota ordaindu beharko da. Bigarren kasuan berriz, zerbitzua dohainik izango da.

Oharra: geltokian 5 min. lehenago egon behar duzue.

Galdetegiaren esteka

**JANGELA:**

Villa Soroako jangelako txandak honela banatuko dira:

- 3 urte 12:15ean
- 4 urte 13:30ean
- 5 urte 13:45etan

Irailaren 6tik 20era eta ekainaren 8tik 19ra jangelako zerbitzua erabiltzen duten ikasleen gurasoentzako oharra:

- Irailean jangela zerbitzua erabiltzen dutenentzat ez da eguerdiko autobus zerbitzurik izango.
- Haurrak 14:45etik 15:00etara jaso ahal izango dituzue atarian bertan. **Sartu atariko atetik eta EZ erabili idazkaritzako sarrera ikastolan sartzeko, mesedez.**

**GOIZEKO ZAINTZA ZERBITZUA:**

Villa Soroan goizeko 7:30etik 9:00etara zaintza zerbitzua eskainiko dugu.

**ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK:**

Eguerdiko musikako saioak irailaren 23ko astean hasiko dira. Hurrengoa da ordutegia:

HH5: 13:10-14:00

HH4: 14:10-15:00

## IDAZKARITZAKO OHARRAK

**ERREZIBOAK:**

Gogorarazten dizuegu ikastolari egiten zaion laguntzari dagozkion 10 errezibo pasatzen ditugula. Hilaren 5ean kobratuko ditugu, irailekoa ez ezik, non hilaren 16an pasako dugun.

Jangela, garraio eta goizeko zaintza zerbitzuen erabiltzaileei kuota hilaren 5ean kobratuko dugu eta aurreko kasuan bezala, iraileko kuota hilaren 16an pasako dugu.

**Zerbitzuren batean baja eman nahi izanez gero, aurreko hilabetea amaitu aurretik egin beharko da. Ez da hilabete bakarreko bajarik onartuko, ez eta bajak eta altak ematen aritzea ere.**

**HH eta LHn ez da ekainean bajarik onartuko**, zerbitzu guztiak ekaina arte baitira.

Eskolaz kanpoko erreziboak hilaren 15ean kobratuko dira eta lehen erreziboa urrikoa izango da.

Eskola-asegurua martxoan kobratuko zaizue (11,50 euro inguru) eta materiala apirilean (12 euro inguru).

**DATUEN EGUNERATZEA:**

Edozein aldaketa esanguratsu (e-posta, etxeko helbidea, telefonoa, kontu korrontea, eta abar...) idazkaritzan aipatzea eskatzen dizuegu, aukeran idazkaritzako helbide elektronikoetara idatziz.

**GURASOENTZAT EUSKARA KLASEAK:**

Seme-alabak ikastolan dauden bitartean, gurasoentzat euskarako klaseak antolatzen ditugu, Hurrako egoitzan. Irailean honen inguruko informazioa bidaliko zaizue.

**HAUR BERRIAK:**

19-20 ikasturtean Ikastolan hasiko diren haurren kasuan, batez ere HH3koekin, kontuan hartu lehenengo astea familiarizazio garaian egongo direla eta ordutegian malgutasuna izan dezazuen eskatzen dizuegu, mesedez. Bestalde, haurraren inguruko informazioa jasotzeko galdetegi bat bidaliko dizuegu. Azken hau bilera egunerako betetzea eskatzen dizuegu, mesedez.

Opor onak izan ditzazuela,

**ZUZENDARITZA**

---

Ohar honen bertsio elebiduna bertan duzue irakurgai.
La versión bilingüe de este documento está disponible aquí.